

LARROTXENE K.E. 2023KO URTARRILERA ARTE ITXIKO DA HOBEKUNTZA-LANAK EGITEKO

- **Kultur etxearen irisgarritasuna egokitzea eta Larrotxene Bideo eremuko ekipoak eta instalazioak berritzea dira helburuak.**
- **Aurreikusitako inbertsioa 950.000 eurokoa da eta lanek 6 hilabete iraungo dutela aurreikusi da.**

Larrotxene Kultur Etxea **uztailaren 29tik aurrera itxiko da** hobekuntza lanei ekiteko. Birmoldaketak **950.000 €**-ko kostua izango du eta eraikinaren barruan izaera desberdineko esku-hartzeak egingo dira jarduera orokorrak eskatzen dituen beharrei behar bezala erantzuteko.

Lehenik eta behin, espazio guztietarako irisgarritasun-baldintzak hobetzeko beharrezko obrak egingo dira, hala nola **igogailu bat eraikitzea, komunak eraberritzea** eta kultur etxearen barruan dauden **oztopo arkitektonikoak konpontzea**. Eta, bigarrenik, **Larrotxene Bideo** zerbitzuko **instalazioak** eta **ikus-entzunezko ekipoak berrituko** dira.

Egokitze-lanek 6 hilabeteko iraupena izango dute eta kultur etxeak ohiko jarduera. **2023ko urtarrilaren amaieran** berreskuratzea espero da.

Lanek dirauten bitartean, **jardueraren zati bat Intxaurrondo Zaharreko Bizilagunen Elkarteak (IZBE)** Intxaurrondo kaleko 54. zenbakian duen lokalera eramango da; eta gainerakoak, hala nola **liburutegia** edo **Larrotxene Bideo**ren prestakuntza-eskaintza, lanen aholkularitza eta beste jarduera batzuk, **Intxaurrondo Kultur Etxean eskainiko dira**.

Liburutegiko dokumentuen itzulketak obra bukatu arte luzatuko dira edota Intxaurrendoko liburutegian edo buzoian itzuli ahal izango dira.

Larrotxene Kultur Etxea

Larrotxene Kultur Etxea izen bereko baserriaren eraikinean dago, Inxaurrendoko kaleko 57. zenbakian. 1984an Donostiako Udalak lau kultur etxe zituen proiektatuta hirian, eta eraikin horren jabetza eskuratu zuen. Eraberritzeko eta egokitzeko obra batzuen ondoren, **kultur etxe bihurtua inauguratu zuen 1987an**. Gaur egun, auzoari zerbitzua ematen jarraitzen du Intxaurrendoko Kultur Etxearekin koordinatuta, zein 2011n inauguratu zuten inguruko hirigintza-garapen handiari erantzuteko.

Kultur etxearen egungo jarduera eraikin konplexu batean garatzen da, ondo bereizitako eta barrualdetik goiko solairuaren bidez komunikatutako bi espazioz osatua. Eraikuntza tradizionalako baserri berezi horrek hormigoizko pabiloi bat du atxikita, zati batean kultur etxearen zenbait erabilera jaso eta **Larrotxene Bideo** zerbitzua hartzen dituen.

Eraikinean egin beharreko eskuhartzeak

Birmoldaketa-proiektuak baserriaren zatian eraikinak irisgarritasun-gaietan dituen gabeziak zuzentzeko beharrezkoak diren esku-hartzeak biltzen ditu.

Funtsean, ondorengo hauek dira: solairuen arteko irisgarritasuna bermatuko duen igogailu bat instalatzea, komunak egungo baldintzetara egokitzea eta bi eraikinen arteko komunikazio-pasabidea zabaltzea egungo koska salbatuko duen arrapala bat eginez.

Larrotxene Bideon egin beharreko eskuhartzeak

Proiektuak bereizi egiten du Larrotxene Bideo eremuko esku-hartzea, irisgarritasunaren hobekuntzez gain, zerbitzurako funtsezkoak diren beste gai batzuk ere biltzen baititu, jarraian aipatzen direnak.

Hasteko, geletako baldintzak moldatuko dira egungo beharretara egokitzeko eta, horretarako, sistemak eta instalazioak, argiteria, elektrizitatea eta datuak sartu beharko dira.

Gainera, prestakuntza-jarduerarako behar diren altzariak berrituko dira: mahai berriak, lanerako aulkiak, apalategiak, arbelak.

Azkenik, ikus-entzunezko ekipo berriak erosiko dira, hala nola kamerak, pertikak, mikrofonía, Led argiztapena... Horri esker, zerbitzuak egun duen ekipamendu profesional zabala handitzen eta berritzen jarraituko da.

Informazio gehiago:

kulturekintza@donostia.eus

943 48 38 40